

# 6-7

## Genevilla Laguardia

### 27,3 Kms

*Gainerakoentzako baliagarria izan nahi baduzu, hasi zeure burua onartzen; besteentzako pixten den sua, gure etxean aurrez piztuta egon behar da.*

Etapas 6

Harrera-Tokiak

Datu Interesgarriak

Ignazioaren arrastoak

Iruzkinak

Etapas 6

Ignazio Bideko etaparik gogorrenak amaitzen ari garela pentsatuz jaikiko gara gaur. Genevillatik irten eta Cabredo mendaterako norabidea hartuko dugu. Cabredora zuzen doan mendi-bidea hartuko dugu, asfaltatutako errepidearen paraleloan doana. Plaza nagusitik, elizaren ondotik pasatuz, eskuinera lehenbizi eta gero ezkerredera hartuko dugu, ongi bereizten den mendi-bidetik abiatzeko. Kontuz, 50 m-ra hasten baita gure bidea, ezkerredera eta ez da orain arteko bidea bezain zabala eta garbia. GR-1 zutabeak Cabredorako norabidea adierazten du. Bide hau jarraituko dugu zuzen, seinale zuri-gorriari jarraituz Cabredora iritsi arte.

Zuzen zuzenean hiria gurutzatuko dugu eta azkenengo etxeen ondoan, Marañonera doan errepidea ikusi arren, guk ezkerretik agerian ez dagoen lurrezko bidea hartzen dugu. Hemen GR1 jarraitu Marañonerantz, asfaltutako errepidetik paraleloan dagoen bidetik. Seinale gorriek eta zuriek gidatuko gaituzte eta zuhaitzez betetako bidetik aurrera egingo dugu, zelaiak inguratuz. Cabredotik kilometro 1era, kontuz Marañonerako norabidea ematen duen zutoinarekin: eskumako bidea hartu behar dugu eta ezkerrekoa utzi. Behera egiten duen bidetik jarraitu eta berehala, zelai zabaletara helduko gara. Bide bat

gurera lotzen da ezkerretik, baina guk zuzen jarraituko dugu 100 metro gehiago soilik.

Marañon herria gure aurrean ikusiko dugu. Kontuz hemen, GRak Marañonera zuzenean garamatzalako eta guk ezkerrean jo behar dugulako, 45 graduko angulua egiten duen bidea hain zuzen. Ez dago seinalerik, beraz, kontuz ibili behar dugu ez galtzeko. Bide honek gora egiten du Lapobalcionera gararamatzen muinora.

Laster bihurgune bat eta eskumakoa bidea hartuko dugu. Bideak gora egiten du zelaien alboan. Ezkerrean baserri bat ikusiko dugu. Gure bidea Marañonetik eta ondo trazatutako beste batean amaitzen da. Ezkerrean jo eta gora egiten jarraituko dugu. Kontuz: lehen kurban , guk zuzen jarraituko dugu.

Bidea bidexka batera izan arte igotzen da. Hartu eta beti zuzen. Bidexka ondo markatuta dago, baina ez da bide zabala jadanik. Igo mendixka muino eta NA 7211 errepideraino. Errepidera heltzean, eskumara jo eskuman hasten den bideraino. Bertatik igo eta lehenengo bidegurutzean ezkerrean. Bide honek zuzenean Lapoblacioneraino eramango gaitu.

Herri hau alderik alde igaroko dugu errepide hau jarraituz, eta beti aurrera, jaitsieran. 600 m-ra, mendi-bide bat hartuko dugu, eskuinera eta Meano herrira eramango gaitu. Ez gara herrira sartuko, baizik lehen bidegurutzean gure ezkerrean hartuko dugu eta gero eskuinera, herria goiko aldetik inguratzen duen kaletik igarotzeko. Herritik irtetea nahiko handia den baserri batera zuzenduko gara, baina ez gara bere bidetik sartuko, gure eskumara dagoenetik baizik.

Bide zuzena erraza da ezagutzeko, harrizko bankuak baitauzka jendea jesartzeko. Ez dugu bide hori utzi behar. Bideak gora egiten du harrizko harrobi bateraino zeinek haranaren bista ederrak dituen. Eskumatik datorren bide batek bat egiten du gurearekin, baina gu beti zuzen.

Aurrerago, bidegurutze batera helduko gara eta Errioxako Uraren etxola gure eskumara ikusiko dugu. Zuzen jarraituko dugu bide beretik. Bihurgune itxi batera iritsiko gara, ezkerrean. Bihurgunean bertan, bide batek gorantz jarraitzen du, baina gu behean goaz, geure bidetik. Metro gutxira bidegurutze bat dago eta ezkerrekoa hartuko dugu. Kripan aldera goaz.

Beti aurrera jarraituko dugu, soroetara eta A-3220 errepidera iritsi arte, hor

eskuinera hartuko dugu. Bidegurutzean eskumara jarraituko dugu eta Kripan herrian sartuko gara. Erdigunera zuzenduko gara eta udaletxera heltzean gure eskumara joko dugu eliza ondotik pasatzeko. Elizaren atzeraino joango gara eta zuzen joko dugu asfaltatutako errepidetik, horrela, herritik aldenduko gara.

Kontuz: herritik 800 metrora, gure ezkerrera dagoen kurban, bidetik irten eta eskumara eta txarto seinaleztatutako mendi- bidean sartu. Mendi- bideak ez dauka seinalerik, beraz, kontuz ibili zelaia zeharkatzean, eta bilatzen dugun erreferentzia- puntua A- 3228 errepidea da, gure eskumara. 700 metroan Dolmen Los Llanos adierazten duen seinalearekin hasten den errepidera helduko gara.

Errepidea zeharkatu eta Los Llanosera zuzenduko gara. Historiaurreko dolmena pasatu, ezkerrera geldituko da eta zuzen jarraituko dugu lehen bidegurutzeraino. Angelu zuzena egin ezkerrera eta jaitsiko gara. Hurrengo bidegurutzean eskumara jo asfaltatutako errepidetik eta Unueva parkera zuzenduko gara (iturri bat dago, baina batzuetan ez da urik egoten). 400 m-ra bide bat gurutzatuko dugu. Aurrera jarraituko dugu. Bi bihurguneren ondoren beste bidegurutze batera iritsiko gara. Ezkerrera hartuko dugu. Berrito bidegurutzea eta orain eskuinera. Hurrengo bidegurutzean, ezkerrera hartuko dugu. Aurrera jarraituko dugu eta ezkerrerako bidea utziko dugu. Gora jarraituko dugu, aurrera. Bidegurutzea berriz ere, eta eskuinera hartuko dugu. Bidegurutze berria, baina zuzen jarraituko dugu. Bidegurutze berria eta ezkerrekoa hartuko dugu. Asfaltatutako errepide batera iritsiko gara, ezkerrera etxe bat utzi ondoren. Gure eskuinera dagoen errepidea hartuko dugu eta bide horretatik irten gabe Guardiara iritsiko gara. Errepidea gurutzatu eta gure ezkerrera jarraituko dugu, herrian sartzeko.

Harrera-Tokiak

## **CABREDO**

Acogida de Peregrinos . Nagore: 948 444 009 // 667 521 264

## **GENEVILLA**

Taxis Genevilla . Tel: 931 780 030 / 661 830 677

## **LAGUARDIA**

Agroturismo Larretxori . (9 plazas) Portal de Páganos s/n Tel: 945600763.

Agroturismo Señorío de las Viñas . (en Laserna-Laguardia) Tel: 945 621 110 / 629 644 710.

Ayuntamiento . Oficina de Turismo. Tel.: 945 600 845

Casa Rural Legado de Ugarte . Tel: 945 600 114 / 699 621 841

Casa Rural Legado de Zabala . (alquiler íntegro) Tel 945 600 114 / 699 621 841

Hospedería Los Parajes\*\*\* . Calle Mayor, 46-48 Tel: 945621130.

Hostal Biazteri . Berberana, 1 Tel: 945600026.

Hotel Castillo El Collado\*\* . Paseo El Collado Tel: 945621200.

Hotel Eguren Ugarte \* . (en Párganos-Laguardia) Tel: 945 600 766.

Hotel Marixa\* . Sancho Abarca, 8 Tel: 945600165.

Hotel Posada Mayor de Migueloa\*\* . Calle Mayor, 20 Tel: 945621175

Hotel Villa De Laguardia\*\*\*\* . Paseo de San Raimundo, 15 Tel: 945600560.

Taxi Laguardia . Tel: 627 700 409

## **MEANO**

Casa Rural Atalaya. (5 gelak, 60 €). Tel: 660 905 113 // 660 222 381

Datu Interesgarriak

Lehenengo etapa luzea, merezi du gaua pasatzeko ostatu on bat izateak. Animatu egin behar gara ardoaren eskualdean sartu baikara eta Ardoaren Ibilbidea jarraitzen ari gara. Kontuz, erromesok! Ez da behar baino gehiago edan behar!

**CABREDO:** Herri txikia. Erromesentzako harrerarako logela eskaintzen du, oherik gabe baina WCarekin.

**LAPOBLACION:** 160 biztanleko herrixka. Ez du zerbitzurik. Elizako erretaula errenazentista ikusgarria da. Elizaren atzeko kalean ere aipagarria da Donejakue Bideko garai bateko erromesen ospitalea: Donejakue Bideko bigarren mailako zati batean gaude, bide hau egiteari utzi egin zioten oso arriskutsua baitzen

bidelapurrez betetako mendizerra igarotzea. Ospitaleko ateko harrian gaur egun ere ikus daitezke erromesaldiko ohiko seinaleak, argi dago erromesen babeslekua izan zela toki hau.

**MEANO:** Herrixka honetan taberna-jatetxea eta botika daude.

**GUARDIA:** 2.500 biztanle inguruko herri zoragarria, justu Ebro ibiaren ibarrerako iritsieran. Garaieradun harresiek eta Plaza Nagusi gotortuak, berriz ere, Loiolako Ignazioren garaiko historiara garamatza. Diotenez, herri honetako lurpea zulatuta dago eta upelategi ugari dituzte bertan, eskualde honetako ardoa bertan ontzen joateko. Erregeen Santa Maria eliza XII. mendean hasi ziren eraikitzen eta XVI. mendean amaitu zuten obra. Eraikin honetan bere portada gotiko izugarria nabarmentzen da, harrian egin zen, XIV. mende amaieran. Bikain gordeta dagoen bere polikromia, XVII. mendekoa da, erretaula nagusia bezalaxe, azken hau Juan de Bascardok egina da. San Joan Bataiatzailearen eliza XVIII. mendekoa da. Hemen jaio zen José Cardiel jesuita (Santa Maria elizaren ondoan monumentu eder bat dago). Hego Amerikako jesuita misio ospetsuetara bidali zuten baina Italian hil zen, koroaren lurraldeetatik bananduta Espainiako erregeak, Espainiako beste jesuita guztiekin batera, 1782an. Herri honetan jatetxeak, botikak, supermerkatuak eta bankuak daude. Turismo Bulegoa, Tel.: 945 600 845.

Ignazioren arrastoak

**Oharpenak:** Gaur, gure bizitzetan gaizkiak duen presentziaz ohartzeko hasiko gara. Gure bekatuzko jokabideen mina sentitzera deituak gaude. Gure munduan errealitate hori aurkitu eta "egun triste" bat esperimentatzea da. Ignaziok, aldarte bihozmindu horretan egotera gonbidatzen gaitu, gaur, hausnarketa aldi, gure ibilaldian gaizkiaz hobeto jabetzen lagun diezagun. Bekatua ez zaigu ezezaguna. Jesuitek horrela definitu zuten euren burua: «*Zer esan nahi du jesuita izateak? Batek norbera bekatari dela jakitea da, baina Jesusen lagun izatera deitua izan dena, Ignazio izan zen bezalaxe... Zer da Jesusen lagun izatea? Gurutzearen estandartepean gure garaiko borroka erabakigarrian partaide izaten konprometitzea: sinesmenaren eta honek berekin duen justiziaren aldeko borroka da*» (Kongregazio Orokorra 32:11-12).

**Esperia:** Sortua izan naizen helburuaz eta Jainkoak gonbita egiten didan bokazioaren jakitun izanik, eskatzen dizut, Jesus Jauna, eman diezadazula nire

bizitzan, bekatuaren eta nahikari okerren presentzia sakonki ulertzeko gaitasuna, horien lotsa eta nahasmena sentituz irits dezadan horrela nire sendabidea eta barkamena.

**Gogoetak:** Jainkoaren izadirako planaz gogoetatzen aritu gara, gure harremanak beste pertsonekin eta munduarekin egoera onean daudenean gertatzen den harmoniaz. Gaur, bekatuaren errealitateaz ari gara gogoetatzen, hau da, gure munduko desordena larriez. Bekatua ez da istripu edo akats bat balitz bezala. Baizik, bekatua, gizakia jakinaren gainean besteen bizitzetan (eta berean), benetako helburuaren aurkako nahi okerrek eraginik, desordena eta kaosa eragiten ari denean da: bezeroei bera aberasteko iruzur egiten dien saltzailea, sexu esklabotzarako haurrak saltzen dituen proxeneta, dirua osten duen eta herritarrak miserian uzten dituen gobernuko funtzionarioa, bere seme-alabak maite ez dituen gurasoa. Gaur, gogoeta egingo dugu, ez horrenbeste geure bekatari historia pertsonalean (hori bihar izango da), baizik gure munduan bekatuak duen errealitate gogor eta ankerrean baizik, eta horrek eragiten duen desordenan, minean eta kaosean. Bekatuak ondorioak ditu. Hausnarketa egingo dugu gurutzean jositako Kristoren irudiaren aurrean, Eliza Katoliko batean sartzen garen bakoitzean begien aurrean ikusiko dugun irudia. Kristo historian sartu zen eta gizakion bekatari izaeraren ondorioak jasan behar izan zituen. Kristok gizakiok berrerosi nahi izan gintuen eta gure gaizkirako bidea onbide bilakatu nahi izan zuen. Gogoeta egingo dugu gure kulturak, behar bada, galdu duenaz: bekatu errealitatearen kontzientzia. Orain proposatzen dugu, munduan bertan sortzen diren salerosketa guztietan, eraikitzen doazen bidegabekeriaren ondorioz, sufritzen ari direnen irudietan zehar joatea. Munduko krisiaren irudiak, porrot egindako iraultzak eta horien arrazoiak berrikusi. Joan pasatzen bekatuaren sustraiek eta munduaren berekoikeriak erakusten dizkiguten irudiak. Sufritzen ari den mundu honetan zehar gabiltzala, otoitz egin, gure bizitzetan inolako lotsarik gabe lanean ari den bekatuaren ikuspegi garbia izan dezagun. Eta eskatu, lotsa senti dezagula gure barruan dagoen hainbeste desordenagatik.

### **Testuak:**

Jeremias 18,1-10. Eltzegilea egiten ari zen buztinezko ontzia bere eskuetan hondatzen bazitzaion beste ontzi bat egiten zuen.

1 Joan 1,05-2,02. Esaten badugu: "Bekaturik ez dugula", geure burua engainatzen dugu eta egia ez dago gure baitan. Geure bekatuak aitortzen baditugu, ordea, fida

gaitezke Zuzena den Harengan, gure bekatuak barkatzeko eta gu gaiztakeria orotatik garbitzeko.

**Azken hizketatxoa:** «Kristo gure Jauna aurrean eta gurutzean josita irudikaturik, hizketatxo bat egin: nola etorri den Egile izatetik gizon izatera, eta betiko bizitzatik aldiko bizitzara, eta horrela ene bekatuengatik hiltzera. Beste horrenbeste neroni begira: zer egin dudan Kristogatik, zer egiten dudan Kristogatik, zer egin behar dudan Kristogatik; eta horrela, gurutzean esekita ikusiz, pentsatu buruak ematen duen guztia. Hitzaurrea, egiaz, mintzatuz egiten da, lagun batek besteari edo morroi batek nagusiari hitz egiten dion bezala; inoiz mesede bat eskatuz, inoiz egindako erruren bat bere bururatuz, inoiz gauzak elkarri kontatuz eta haien argibidea bilatuz. Esan Gure Aita».

Iruzkinak

## Leave a Reply

Your email address will not be published. Required fields are marked \*

Comment \*

Name \*

Email \*

Website

Δ

## Bizikletaz egiteko erraza

baina bi tokitan hobe da errepidea hartzea: Cabredotik irten eta portua igotzerakoan hobe Lapoblacion alderako norabidea hartu eta gero, Menaotik aurrera, hobe Kripanera zuzenean joan, errepidez, nahiz eta lurrezko bidea ere ibiltzeko modukoa izan

Genevilla: 0 km.

Cabredo: 2,5 km.


Lapoblacion: 8,7 km.

Kripan: 16,5 km.

Guardia: 27,3 km.


## Bidea

## Etapa eskema





# Altimetria



## Laguardiako eguraldian

[bidea ikustea wikiloc](#)

[gps-a deskargatzea](#)

[MapOut deskargatzea](#)

## Galeria

## Etapako Argazkiak










































[aurreko etapa](#)

[hurrengo etapa](#)